

## 2. GAIA: ESTATUA

### 1. EK 1 ARTIKULUA

Espania zuzenbide-**estatu sozial** eta demokratiko moduan eratzen da eta **askatasuna, justizia, berdintasuna** [...] defendatzen ditu, bere zuzenbide-antolamenduaren balio nagusizat harturik.

### 2. KONSTITUZIO ZUZENBIDEA

Ordenamendu/antolamendu juridikoa da (lege/arau guztiak batzen dituen multzoa da ordenamendu juridikoa).

- **Arau multzoa da:** antolamendu juridikoa (O.J) Hitz gutxitan esanda konstituzioa arau multzo bat da, antolamendu juridiko bat. Lege guztien gainera dago; hau da, estatuko arau nagusia da, eta gizabanakoen eskubideak, organoen banaketa eta beren funtzioa antolatzeaz arduratzen da.
- **Konstituzioa** multzoko eta Estatuko arau nagusia da (XX. mendea vs. XIX dokumentu politikoa bakarrik) Konstituzioak, XX. mende hasieran hasi ziren indartzen, arau izaera eman zitzaizkion. Ordura arte, XIX. mendeko konstituzio Europearrak adierazpen ideologiko hutsak ziren soilik.
- **Estatuko** arau garrantzitsuenak biltzen ditu:
  - Gizabanakoaren eskubideak
  - Organoen banaketa eta beren funtzioa
- Estatu konstituzionalistaren 3 iraultzaren ondorio: Ingalaterra, AEB eta Frantzia. Antolamendu juridiko hau, hiru iraultzen ondorio izan zela esan dezakegu; Ingalaterrakoa, AEBkoa eta Frantziakoa.

### 3. ESTATUAREN KONTZEPTUA

Estatu bat erakunde bat da, gizarte bat arautzen duten arau juridikoak sortzeko gaitasuna duena eta lurralde baten gainean barne eta kanpo subiranotasuna eksklusibotasunean duena.

- Gizakia gizartean bizi da: **gizarte-ordena** sortuz
- **Sistema politikoa** ordenaren zati bat da
- Bertan gizarteak bere antolamendua adosten du

- Helburua: **baliabide** mugatuen banaketa adostea (gatazkak) baliabide guztiak: baliabide ekonomikoak, ura, denbora... dena da mugatua. Aurrekontuak adosten dira urtero eta horren arabera estatuak aurrekontu horiek ditu erabiltzeko. Hori ordenatzeko balio digu estatuak (Errege batekin funtzionatuko bagenu diru guztia izango luke eta berak erabakiko luke zenbat diru eman zerri hezkuntzari zenbat, armeei zenbat...) Botere hori mugatzeko dugu estatua (Senatua, kongresua, parlamentua...faktore hauek elkar kontrolatzen dira. Aurrekontu horiek gure zergekin ordaintzen dira)

Estatu guztietan, gizakiak antolatu egin behar dira (gizakia otso izan ez dadin beste gizaki batentzat) eta gizarte ordena bat sortu. Hain zuzen, eragin handia du "ordena" honetan baliabideen urritasunak; izan ere, baliabideak mugatuak izateak eragiten ditu gatazkak gizakien artean, eta hauek konpontzeko ezinbestekoa da estatu baten presentzia.

- Sistema politikoko tresnarik adierazgarriena: botere politikoa = indarraren erabilera
- Boterearen kontzentrazioa eta monopolioa
- Estatuak instituzionalizatu egiten du boterea
- Gizabanakoek boterea onartzen dute
- Estatua = sistema politiko (antolakuntza) historiko bat da

Estatuak eboluzionatu egin du eta ari da (sistema politiko / antolakuntza historiko bat da), eta bere tresna edo ezaugarriak adierazgarriena botere politikoa da; hau da, indarraren erabilera. Estatuak instituzionalizatu egiten du bere boterea, hots, ofiziala bihurtzen, eta gizabanakoek botere hori onartzen dute

#### 4. **ESTATU MODERNOA** (Mende askotako prozesua izan zen)

- Estatu modernoaz ari garenean boterea bere baitan kontzentratzen duen eta beraz boterearen monopolioa duen estatuaz ari gara. Estatu modernoak aipatzen dugunean, gaur egungo estatuaz ari gara; ez erromaniko edo greziarraz. Egungo estatua, mende askotan zehar eta pixkanaka sortua izan da, eta boterearen monopolioa hartzen du bere gain (honen salbuespen gisa ditugu Kaiser eta diktadoreak).
  - Ezaugarriak 3 elementu izan behar ditu nahitaez estatuak:
    - Herri bat: elkarrekin bizi den pertsona talde egonkorra

- Lurralde bat: Esparru fisiko egonkor bat
- Subirotasuna: botere propioa

Amancio Ortegak ezin du estatua sortu arrazoi hauengatik: ez da hauteskundeetan aurkeztu, ez du herriak aukeratu haien ordezkaria izateko, ez du herri bat eta ezta ere lurralde fijo bat (enpresak lurralde askotan ditu, hori bai). Baina bere enpresak dauden herrietan ez du subiranotasuna.

## 5. ESTATUAREN ANTOLAKETA ERAK

- **Estatu erari dagokiona** (forma de Estado): botere subiranoa, lurraldea eta herria antolatzeko moduarekin zerikusia dauka. Sistema parmanetarioa (Espainia), presidentzialista (Trumpena presidentzialista da eta ez parlamentarioa, ezingo zen zentsura moziorik egin)... Espainia: monarkia parlamentarioa dauka (1.3art.)

- UNITARIOA

- Herria, lurraldea eta boterea homogeneousak, simpleak eta uniformeak diren estatu mota) erkidego gabe, estatutu gabe...Botere zentro bakarra duen estatu mota da.
- Botere zentro bakarra duen estatu mota (Adibidez: Frantzia, ez dago deszentralizazio politikorik, legebiltzar autonomiko edo antzekorik ez duelako, soilik administratiboa)
- Hasieran estatu guztiak ziren Unitarioak, denek Frantziaren (Napoleonen) eredia zuten (oraindik Frantziaren unitarioa da, botereak ez daude banatuak: deszentralizazioa ez du onartzen, ez ditu erkidegoak onartzen, ez daude estatutuak)
- Espainia deszentralizatu izatea guretzat mesedegarria da, autonomi erkidegoak ditugu eta horri esker Osakidetza (Estatuko hoberena)
- Adibidez: Frantzia, ez dago deszentralizazio politikorik (legebiltzar autonomiko edo antzekorik), soilik administratiboa. Espainia unitarioa izango balitz, ez genuke eskumenik, osakidetzarik... izango, eta guztia Madrilen antolatuko litzateke.

- KONPLEXUA
  - Ordenamentu juridiko dibertsifikatua duen estatu mota, sub-estatuz osaturik dago
  - Federala: Subiranotasuna egitura federalean dago soilik. Sub-estatuak ez dira subiranoak
  - Konfederala: subiranotasuna sub-estatueteriko bakoitzean mantentzen da
- **Gobernu erari dagokiona** (forma de gobierno): Estatuaren botere edo aginte politikoaren antolaketa zehatza nolakoa den. 3 botereen arteko antolakuntzarekin zerikusia dauka. 3 mota: Presidentzialista, Parlamentarioa, erdi- presidentzialista.

- SISTEMA PRESIDENTZIALISTA

- Lehendakari-sistema: botere legegilearen eta exekutiboaren arteko banaketa zorrotza ematen da
- Botere exekutiboa: estatuko presidenteak (estatuburuak) (Ezin da zentsura moztiorik egin, zaila da Trump boteretik kendu edo botatzea).
- Botereen arteko zatiketa garbia bilatzen da
- Presidenteak eta botere exekutiboak ez dute erantzukizun politikoa parlamentuaren aurrean (ez dira bere menpeko)
- Botere legegilearen eta presidentearen arteko banaketa zorrotza (ez absolutua)
- Gehiengo politiko ezberdina egon daiteke exekutiboan eta legegilean
- AEB

- SISTEMA PARLAMENTARIOA

- Gobernuak parlamentuaren konfiantza politikoa behar du. Botere banaketa onartzen du beti ere kongresuaren eta parlamentua arteko lotura betiere bermatzen dela ikustean.
- Herriak parlamentua soilik hautatzen du, eta azken honek gobernu
- Konfiantzazko lotura tresnak daude: inbestidura, konfiantza, zentsura mozioa, parlamentuaren disoluzioa.
- Botere exekutiboa gobernuari dagokio, ez estatuburuari
- Gobernuarengandik bereizita dago estatuburuaren figura
- Estatu buruzagitzaren eredu ezberdinak daude: monarkia eta errepublika
- Gobernu eta parlamentuaren arteko dialektika ematen da
- ESPAINIA: Exekutiboa legegilearekiko dependientea da. Parlamentuak hautatzen du gobernu presidentea, ez herritarrek zuzenean.

- SISTEMA ERDI-PRESIDENTZIALISTA: Orain arte bien nahasketa

- Botere exekutiboa ez dago erakunde bakar baten esku. Estatu buruak eta gobernuak dituzte ahalmen exekutiboak
- FRANTZIA → Lehen ministro: Valls  
→ Estatuburu: Hollande

## 6. ESTATU MODERNOAREN BILAKAERA

- Aurretik bestelako antolakuntza motak egon dira: hiri estatuak (Greziako *Polis*-a eta Erromako *Civitas*-a), ekialdeko inperioak (Pertsia, Txina...), Erdi Aroko *poliarkia*
- Nola ematen da Estatu modernoaren agertzeko prozesu historikoa: Estatu modernoaren agerpena (estatu absolutu bezala) eta sustapena XV-XVIII. mendeen artean ematen da, prozesu historiko luze baten ondorioz. Faktoreak ezberdinak:
  - **Erromatar inperioaren gainbeherak** (k.o. 476. urtea) hutsunea utzi zuen boterean. Ondorioz, poliarkian bezala ezagutzen den fenomenoak agertu zen.
    - Boterearen atomizazioa ematen da.
    - Monarkia ahulak eta jauntxoekin basailutza-harremanak.
  - Oso garai gatazkatsua izan zen. Ez zegoen guztien aurrean nagusituko zen boteririk. Zergatik da estatu modernoak eta ez soilik estatuak?  
**Estatua:** Gizartearen antolatze modua da boterearen antolatzearen bidez.

## 7. ESTATU MODERNOAREN AURREKARIAK

- **ERDI AROKO GIZARTE ANTOLAMENDUA: IX-XIII**
  - Antolakuntza Feudala/Estamenduzko sistema
  - **Nobleen** ahalmenak babesten zituen
  - Lurraren eta jendearen jabeak ziren
  - Bakoitzak bere lurraldeetako arauak jartzen zituen (*Privis legis*, pribilegioetan oinarritutakoa)
  - Norberaren zuzenbide egoera baldintzatua: jaiotza (zein jauntxoaren azpian, batzuk besteak baina garrantzitsuagoak baitziren) eta generoa (emakume batzuk ez zuten nahi elizaren azpian edo mende egon. Salbuespena: beginak XII → emakumeen eskubideen alde zeuden eta liburuak argitaratzen zituzten) geroago herejetzat hartu zituzten eta desagerrarazi egin zituzten elizako kideek jazarpenen bidez.
  - Gerra gaietarako ENPERADOREAREN aginte azpian
  - Salbuespena: hiriak eta hiritarrak, bertan ez baitzuten boteririk.

- Merkatariek zuzenbide-segurtasuna behar zuten. Zergak unifikatzeko, horrela lapurretak ekiditen zituzten. Adb: Italiarrak, Asia inguruan kokatu ziren merkataritza lanetarako et askoaberastu ziren. Merkatarari hauek ez zioten nobleei dirurik eman nahi
- Adibidez: Padovako Marsilio (XIV.)

## 8. LABURPENEA

### ● ESTATU MODERNOA - ZUZENBIDE ESTATUA

- Estatu modernoa estatu absolutuaren forma politikoarekin jaio zen. Gero estatu liberal bezala konfiguratu eta gaur egun estatu sozial bezala agertzen da.
- Azken biak (estatu liberal, sozial) zuzenbide estatu dira, lehena (estatu absolutua) ez.
- Zuzenbide estatuak: estatuak muga juridikoak ditu (legalitate printzipioa). Boterea ez da diskrezionala. Aurretik onartutako legeetan oinarritu behar da.  
+ OSO GARRANTZITSUA: Liberalek legeen nagusitasuna eskatzen zuten, gizartea legeen bidez jarri behar zen funtzionamenduan, eta besteek ordea legea erregeak esaten zuena zela zioten, eta estatu libera?



### ● ESTATU ABSOLUTISTA – MONARKIA ABSOLUTUA

- Erresuma batua Enrike VII, Frantsian Luis XI, Espainia errege katolikoekin.
- **XV: Niccolo Machiavelli:** Monarkia absolutua eta printzearen presentzia fendatzen zituen; orden bat lortzeko modu bakarra zela zeritzon. Hori lortzeko indarra erabili behar bazuen, erabili egingo zuela zioen.
- **Pado Masilloi:** Elizaren funtzioak zalantzak jartzen hasi zen, inkisizioaren aurka agertu zen, eta mugimendu sozial bat sortzen hasi. Bere ustez estatua monarkia kontituzional bat izan behar zen baina herriak izan behar zuen

boterea. Bere helburuetako bat herritar eta herritaren arteko ezberdintasunak desagerraraztea/gutxitzea zen.

- **XVI: Jean Bodin**
- **XVI: Thomas Hobbes:** Hitzarmenetik (metafisikoa) dator Estatua (herriak eta erregeak sinatu dutena). Pertsonen arteko berdintasuna defendatu zuen, botere komun bat egongo ez balitz kaosa izango litzateke mundua, errege baten beharra ikusten zuen. Erregearen boterea ez dator jaingoikotik baizik eta herritik. Estatu liberalaren oinarriak jarri zituen

Aipatu behar da, estatu absolutuak bere akatsak ere zituela, izan ere, liberalek askatasun gehiago bilatzen zuten, eta gatazka sortu zen haien artean. Hobsen ideiak garatu ostean iritsi zen estatu liberala

- **ESTATU LIBERALA (XVI) - ZUZENBIDE ESTATUA**

- Gizarteko antolakuntza berria: klase sozialak
- Absolutisten gehiegikeriei aurre egiteko tresna giza agertu zen Konstituzio - dokumentu politiko bat bakarrik
- 3 ezaugarri:
  - Legearen naguzitasuna – parlamentuak du “zilegitasun demokratiko zuzena“.
  - Botere banaketa
  - Oinarrizko eskubideen babesa: askatasuna, berdintasuna...
- Liberalak legeak aldarrikatzen zituzten eta haiek kodigo batean batuta egotea eskatzen zuten → konstituzio bat behar zuten.
- **Konstituzio zuzenbidea** mugimendu konstituzionalista eta konstituzioekin sortzen da, XVIII eta XIX. Mendeetan. Hiru iraultzen ondorio. + Gogoratu lehenengo konstituzioak ez zutela arau mailarik, baizik eta dokumentu bat.
- Lehenengo konstituzioak ez ziren zuzenbidearen parte; dokumentu politikoak ziren. Konstituzio zuzenbidearen fase ezberdinak:
  - Lehenengo fasea: Antzinako Erregimenaren apurketa eta Konstituzio Estatuaren hedapena.
  - 2. Epea (1848-1914): Konstituzioa ez da arau juridiko nagusia, dokumentu politikoa baino.



- 3. Epea: Konstituzioa arau juridiko bezala (zuzenbideko disziplina bihurtzen da).
- Konstituzionalismoaren berezitasuna: berdintasun printzipioaren defentsa (botere mugaketa eta oinarrizko eskubideen babesa).
- **John Locke (XVII):** Benetako hitzarmen bat sortzen du, jabego pribatua babesteko - Konstituzioa. Liberalismo klasikoaren aitzindaria. Ideia nagusiak: norbanakoa gizartearen gainetik (erregearen mende egon ziren aurreko urteetan eta horrek eragin zuen hau). Gizakiaren eskubideak: bizitza, askatasuna eta jabegoa. Estatuaren antolaketa jarri zuen martxan, botereen banaketa: exekutiboa eta legegilea. Hala ere, aipatu beharra dago, estatuak indar gehiegi hartzen bazuen herria “errebelatu” zitekeela.
- **Montesquieu (XVII-XVIII):** Aginteen banaketa: legegilea, betearazlea eta epaitzekoa. Johnek ez bezala, botere banaketa 3 zatitan banatu zuen. Aginteen banaketa: legegilea, betearazlea eta epaitzekoa. (Lokekin ados biztanleriaren askatasuna ziurtatu nahi zuen). Bere botereen banaketaren ideiak eragin handia izan zuen munduan, gaur egungo botere banaketa bera delako.
- **Adam Smith (XVIII):** Esku ikustezinaren asmakaria, merkatua berez antolatzen da eta estatuak ez luke eskuarzerik egin behar. Liberalismoaren pertsonaiarik garrantzitsuena. Lanaren espezializaioa sustatu zuen, dirua aurrezteko sustatu zuen garapen ekonomikoa lortzeko. Esku ikusezinak arazoak izan zituen (merkatua kaos batean bihurtu zen) eta horrek ondorio gisa ekarri zuen estatu sozialaren teoria.

- **ESTATU SOZIALA (XX)**

- **John Maynard Keynes:** Bi mundu gerrak pairatu zituen. Trantsizio fasea bizi zuen eta estatu sozialaren garai iritsi zen. Keinesek estatu soziala defenditu zuen, hau da, estatuak ekonomian parte hartzea defendatzen zuen. Gastu publikoaren hazkundera bultzatu zuen eta eskaintza eskariari egokitu behar zitzaiola.
- **Hans Kelsen:** Honek ere bi mundu gerrak pairatu zituen. “Estatuari ez zaizkio limitazioak jarri behar”. “Lege guztien gainetik dagoen legea da konstituzioa” (legeen piramidean. Auzitegi konstituzionala sortu zuen

● **PERTSONAIA HISTORIKOAK (gure estatuan):**

- Jose Antonio Primo de Rivera y Sáenz de Heredia
- Práxedes Mateo Sagasta
- Antonio Cánovas del Castillo
- Emilio Molá
- Carlos Arias Navarro
- Adolfo Suarez Llana
- Leopoldo Calvo-Sotelo
- Felipe Gonzalez
- Jose Antonio Aguirre
- Santiago Carrillo

Ideologiaren eragina — zientzia-diskurtsoak, filosofia, erlijio, zuzenbidea —			
Politikan Aginteraren antolamendua	Ekonomian Ekonomia-sistemak edo ekoizpen erak	Gizartean Gizarte-antolamendua sentsu zabalean	
↓	↓	↓	↓
Alor Publikoa Herri-agintearen jardunerako harremanak	Alor Pribatua (Publikoa) Ekonomia-harremanak	Alor Pribatua (Publikoa) Gizaki eta gizataldeen arteko harremanak	Alor Pribatua (Pribatua, etxekoa) Familia-harremanak
HIRIAK/ERREPUBLIKA/ INPERIOA <i>Pater familias</i> HIERARKIA PRINTZIPIOA	ESKLABOTZA Jabeak/jabegoa	GIZARTE GERUZATUA HIERARKIA PRINTZIPIOA	ESKONTZA <i>Pater familias</i> HIERARKIA PRINTZIPIOA
FEUDOAK/ERREINUAK Jauntxioa/Errege-arreginak HIERARKIA PRINTZIPIOA	FEUDALISMOA Jabeak/Ez jabeak	GIZARTE GERUZATUA HIERARKIA PRINTZIPIOA	ESKONTZA <i>Pater familias</i> HIERARKIA PRINTZIPIOA
ESTATUA (Monarkia absolutua) HIERARKIA PRINTZIPIOA	MERKANTILISMOA Jabeak/Ez jabeak	GIZARTE GERUZATUA HIERARKIA PRINTZIPIOA	ESKONTZA <i>Pater familias</i> HIERARKIA PRINTZIPIOA
ZUZENBIDE ESTATUA (Hiritarra, gizarren errolda- sufragioa) BERDINTASUN PRINTZIPIOA (Formala)	KAPITALISMOA Gizar jabeak berdinak, era formalean ASKATASUN ETA BERDINTASUN PRINTZIPIOAK	GIZARTE EZ GERUZATUA Era formalean, pertsonak osetzen dute BERDINTASUN PRINTZIPIOA (Formala) ASKATASUN PRINTZIPIOA	ESKONTZA <i>Pater familias</i> HIERARKIA PRINTZIPIOA
ESTATU DEMOKRATIKOA (Hiritarra, gizarren sufragioa) BERDINTASUN PRINTZIPIOA (Formala)	KAPITALISMOA Gizar jabeak berdinak, era formalean ASKATASUN ETA BERDINTASUN PRINTZIPIOAK	GIZARTEA EZ GERUZATUA Era formalean, pertsonak osetzen dute BERDINTASUN PRINTZIPIOA (Formala) ASKATASUN PRINTZIPIOA	ESKONTZA <i>Pater familias</i> HIERARKIA PRINTZIPIOA
ESTATU SOZIALA (Hiritarra, gizemeen eta gizarren sufragioa) BERDINTASUN PRINTZIPIOA (Materiala)	KAPITALISMOA Gizar eta gizeme jabeak berdinak, era formalean ASKATASUN ETA BERDINTASUN PRINTZIPIOAK	GIZARTEA EZ GERUZATUA Era formalean, pertsonak osetzen dute BERDINTASUN PRINTZIPIOA (Formala/Materiala) ASKATASUN PRINTZIPIOA	ESKONTZA Ezkontideak BERDINTASUN PRINTZIPIOA (Formala)

Aintzinako Erregimenetik Zuzenbide-Estatu Sozial eta Demokratikora (Konstituzionalismo eta harreman ekonomikoak)

